



Errauskalurik ez Zubietan, ez inon

Ibilbidea: Olaberriko hirigune inguratuz

Elkarrizketa: Virginia Da Graça

Informatika: initsi da zuntz opitikoa



Beti kontu berberarekin gabiltza, denbora azkar pasatzen dela, gora eta behera. Orain dela gutxi, ikasturte hasiera eta asmo berriak genituela esanez, eta jadanik, ikasturtea amaituta daukagu; eta oporrak, zer esanik ez, horiek ziur abiadura supersonikoan igarotzen direla. Baina, aurreko aletik hainbat gertaera izan ditugu, eta asko garrantzi handikoak: Gure Esku Dagok herritarroei galdetu digu etorkizunean herri bezala zer izan nahi dugun; aurrera begira egiteko asko dagoela agerian geratu bada ere, atzerapausorik ez duen ibilbidea abian jarri dugu, eta pausoz pauso aurrera egiteko asmo irmoa dugu. Estatu mailako hauteskundeak ere izan ditugu, eta behin gutxi balitz, birritan aurten; gainera, emaitzek euskal herritarren nahi eta asmoei bizkar eman diete. Agerian geratu da beste behin ere euskal herritarren asmo eta nahiak beste bide batetik doazela. Eta politikaz aspertuta bazaudete, animoak eman beharko dizkizuegu, udazkenean Euskal Autonomi Erkidegoko hauteskundeak izango baititugu, lehendakaria aukeratzeko parada izango dugu. Ea oraingo honetan zer dioten herriak.

Eta herriaz hitz egiten gabiltzanez, Itsasondo 2.0. aldizkariaren 33. ale honek herrian azkenaldian gertatutakoen berri eman nahi dizue. Eskolak eta haurreskolak ikasturtea amaitu dute, eta festa egiteaz gain, urteko kronika laburra ere bidali digute. Tipi ttipak ere ikasturte oparoa izan du, eta heme-rotekari dagokionez, ekitaldiz beteta dator: ikasturte amaierako festa, garagardo jaia, hitzaldi sortak, zinema kalean, San Juanak, Urkiko jaiak. Elkarrizketa motzaren atalean Virginia Da Graça, Itsasondon bizi den mozanbikearra aurkeztu nahi dizuegu; ea zer moduz moldatu den gurera. Eta horrez gain, betiko atalak ditugu: informatika, sukaldaritza, ibilbidea.

Hondartza ertz batean edo mendi magal batean Itsasondo 2.0. ale honetaz goza dezazun opa dizugu; eta, besterik ezean, etxeko sukalde edo txoko kuttun horretan lagun izan dezazun. Uda ona pasa; bueltan ikusiko dugu elkar. ■

03. Udaleko berriak

04-06. **Eskola:** helduak eta haurrak

07. **Haurren herria:** haurren herriaren galdeketa

08-09. **Haurreskola**

10. **Gazteria**

11. **Gurasoak**

12. **Elkarrizketa:** Virginia Da Graça

13. **Ongizatea:** Itsasondoko herri koloreanitzia

14-15. **Tipi tapa:** ekimenak jarraitzen du

16. **Jubilatuak:** txangoz-txango

17. **Dolua**

18-19. **Ibilbidea:** Olaberriko hirigunea inguratuz

20. **Errauskailua:** ez han ez inon

21-23. **Agenda 21:** lan taldeen balorazioa

24. **Informatika:** iritsi da zuntz optikoa!

25. **Gure esku dago**

26-29. **Hemeroteka**

30. **Natura eta errezeta**

31. **Liburuaren txokoa / Euskararen atala**

32. **Oharrak. Kultur agenda**



Sarrerako bertsoak

Doinua: Loreak udan ihintza bezala

Hogeita hamahiru dago zerrendan
eskuarteko alea

Gure esku dago hausnarketaren
gogotsu egin zalea,
ikasturteko amaierari
dagokion seinalea:
ume hotsekin luzatzen dela
udako arratsaldea.

Itsasondora iritsi zaigu
eskola txikien festa
plaza ta frontoi nola arkupe
garraisi biziz gainezka,
jubilatuak TipiTTapaka
txango guztien errezka
nekeak piskat arindu eta
udazkenerako presta.

San Juan suak uxatu ditu
pentsamendu biurriak
eta udarak bereganatu
goizeder alaigarriak,
Mozanbiketetik Ginak dakartza
bizitzeko aldarriak
denon osagai bihur daitezen
munduko joan-etorriak.

Udaleko berriak

Azken hilabeteetan udalean gertaturikoak

Maiatzaren 23an egin zen azken udalbatza, eta bertan, besteak beste, honako erabakiak hartu ziren:

- Itsasondo eta Legorretako udalentzat arkitekto lanpostu bat hornitzeko bi udalen artean lankidetzaren hitzarmena sinatzea onartu zen.
- Hiri antolaketa planaren aldaketa puntuala, behin-behineko izaera onartzea. Onarpen honen ondoren, prozedura jarraituz, Euskal Herriko Lurralde Batzordera bidali da, eta honek txostena egin eta aldekoa bada, behin betiko izaera onartua geratuko da.
- Bertako espeziekin lursailak birpopulatzeko proiektuaren barruan, lursail berriak erosteko proposamena onartu zen. Horrela, Itsasondoko 01/740, 01/872 eta Bidaniako 011/001 lursailak eskuratu ditu Itsasondoko Udalak.
- Udaleko 2017. urteko jai egun ofiziala 2017ko irailaren 22a izendatu da, eta honen berri Eusko Jaurlaritzari eman zaio.
- Mozioa onartu da, DSBE/AGI diru-laguntzak Gipuzkoako Foru Aldundiak aurretiaz zeuden bezala mantendu ditzan eskatzeko.

Azken hilabeteetan dekretuz onartu diren erabakien inguruan:

- Obra baimen bat eman da, Goiz Eguzki etxearen aurreko lorategian hormigoia botatzeko.
- Hilerriko likidazio bat onartu da.
- Gizarte larrialdietarako laguntza bat onartu da.

Azken hilabeteetan eskatu diren laguntzak:

- Parte-hartze laguntzak aldundira. 3.000€ eman dizkigute.
- Herri bideak konpontzeko diru-laguntzak aldundira. Urkiko bidea. Oraindik ez dugu erantzunik jaso.
- Agenda 21 eskolarra, eskolan iraunkortasunari buruzko proiektuak burutzeko. Oraindik erantzun gabe.
- Biodibertsitate eta iraunkortasun laguntzak Eusko Jaurlaritzara. Murumendi inguruan hasitako lanekin jarraitzeko proiektua. Oraindik erantzuteko.
- Paisaiaren inguruko laguntzak, Eusko Jaurlaritzara. Minaren inguruko proiektu bat aurkeztu da. Oraindik erantzun gabe.
- Landa ingurumena, Eusko Jaurlaritzara. Ur hoditeri zahartua aldatzeko proiektua. Herri bideen inbentarioa eta konponketak burutzeko proiektua. Oraindik ebatzi gabe dago.■



Urkiko bidea



Itsasondoko udalak eskuratutako lur saila

Helduak eta haurrak; ezagutzaren transmisioa



Eskolako haurrak herriratzea eta herria eskolatzea da Urkipe Herri Eskolako helburu nagusienetako bat; herritar nortasuna izateaz gain, herrikoekin hartu-emana izan eta herritarrak gure programazioaren parte nagusi izatea. Ondorioz, 2015-2016 ikasturtean herriko amonekin batera proiektu bat jarri dugu martxan. Helburua da belaunaldien arteko transmisioa lortzea. Oso esperientzia polita eta aberasgarria izan da. Eskerrik asko!

Tereri eta Edurneri elkarrizketa

Zer sentitu duzue berriro eskolara bueltatzean? (Endika, Laida, Naroa eta Udane).

Tere: Ni oso pozik, beti umeekin hartu-emana izatea nahi izandu detelako, eta nik dakiten zerbait edo erakutsi dezaketen zerbait erakusteko. Ez da bakarrik eskola, baizik eta elkartetxea juten zeatenen baita ere netzako jende gehio da, edadetuekin hartu-emana euki nahi izatea zuek, ba neretzako poza izaten da.

Edurne: Ni moja eskola batean urte askotan ibilitakoa naiz, eta batzuk etzuen ondo pasatzen, baina ni beti gustora ibiltzen nintzen eskolan. Eta orain, honuntza etortzean, nere semek ikasi duten eskolara etortzean, oso gustora etorri naiz eta haurrekin oso gustora sentitzen naiz; haurrekin beti pasatzen da ondo. Honek bizie ematen do! Alaitasuna!

Tere: Batzutan esaten deu zarata haundie, eta hola aitzen gea... baino bestetik umek behar die eta guk behar ditugu gure bizitza aurea emateko, bestela ez dauke sentiduik! Guk zuena ez badeu ikusten, guk ordun ze aporteratzen deu? Dakiuna bai, baino...

Pozik al zarete guk erakutsi edo aporteratu di-zuegunarekin? (Tere eta Edurne)

Bai, gustau zaigu, baino puntuna... batzueri bai ta beste batzueri ez... pazientzie behar izaten da ta... Baino... "bufa" hartuta etxea jun ginenen... Batzuk etxekoei oparitu genizkien... oso politte izan zan!

Tere: Ume batzuk oso puntualak izan die puntu tailerren, eta gustora aritu die, eta beste batzuk ezer ez jakitetik, ez dakit, orratza sartu eta atera hasi... eta oain erreztasuna hartu dute. Gauza hauek bestela, beharbada, etzenituzten ikasiko. Nik beti eskutan orratza dauket, gantxiloa, momentu baten etxen gelditzen zeanen, bakarrik, puntu kruz edo gantxiloa in eta... tokilla asko in ditut. Egie esan, nik josten asko ez dakit, lantegin 40 urtetan ibilitakoa naiz ni. Ordun, nere bizi guttie izan da, baino txikitzen josten erakusten ziguten, igual matematika gutxigo, baino josten bai! Ordun, emakumea izaten zan etxea itteko, josteko eta umek hezteko; eta gizona, lanea juteko eta jor-nala ekartzeko. Gure garaien hasi ginen batzuk kanpoa lanean juten. Horregatik nik beharbada ez det izan 40 urte lantegin pasa ta gero umekin disfrutatze denboraik, ta oain eskolan ba...



Gustura sentitu al zarete irakasle paperean?

Tere: Ni irakasle bezela ez, ez naiz sentitu, nik ez det izan zuengan... Ez dizuet sekula ixilik eoteko esan... Nere gainetik nola irakaslea bazeon, ni lasai sentitu naiz heari nik dakitena eakusten, baino irakasle bezela ez.

Oso gustora egon naiz, ta zuek irakaslek guri gauza hoik itten ez dakizuela esandakon... oso gustora sentitu naiz.

Edurne: Ni primeran sentitu naiz hurrekin; batzuk langilego eta beste batzuk gutxiago, batzuk denbora gehiago behar izan dute eta beste batzuk gutxiago, ikasgai guztietan bezela, baino ni oso gustora sentitu naiz.

Tere: Oso ondo, gusto-gustoa.

Aurten puntua egiten erakutsi diguzue.

Zer asmo duzue hurrengo ikasturterako?

Tere: Bueno, ez dakit segituko deun, hori andereñokin erabaki beharko deun, baino gure asmoa zan aurrena josten erakustea eta gero pentsatzen gendun 3.eba-luaketan sukaldaritza erakusteko modue izango ote gendun. Baino, ikusi dezue puntukin nahikoa izan deula eta informatika saioak ere zintzilik geratu direla, baino hurrengo urterako kurtso hasieratik hasita, hobeto! Garrantzitsuna hastea da, ta hasita gaude... Behar dituzuen gauzak erakustea da helburu, fundamentuzkoak, behar direnak. Baina, batzuk prestatu esaterako (erosi edo batzatzik hartu, izkiñeko haria kendu, garbitu, ure prestatu...)...nik e gero arte, handie izan arte ez nun ikasi e! Amak itten zon eta ondo zeon!

Zuek unibertsitatera joaten zaretenean edo etorkizunean, jakin, arropan zulo bat itten bazaizu konpotzen edo baina batzuk edo lenteja batzuk prestatzen, batza daukenezue gainea, ezta? Albondigak batzuk ...holako gauzak...gure idea hori zan.

Edurne: Unibertsitatean edo etxetik kanpo zaudetenean oinarritzko gauza batzuk egiten jakitea, patata tortilla bat esaterako...

Zer jaso nahiko zenukete gugandik?

Zuek pozik eotea ta gu kalen ikusita. Agur Tere! Agur Edurne! esatea... Nere pozik handiña hori da! Beste aportazioik...

Edurne: -Edurne, puntu pusketa handi bat eginda dauket! Holakok esaten dizkigute plazan eta oso politte da.

Tere: Eta egindako puntue plazan erakutsi, hitzein eta plazan konpontzen lagundu... hoixe! Azken baten, umek pozik ikustea! Gure eskolan bi gehiago zarete ia, Tere eta Edurne datoz...

Tere: Bai, ez dakit, ama bat umekin ez danen moldatzen, haren umek zaindu... ez dakit... truke! Hoixe nahiko nuke, hurrungon zuri tokatuko zaizu. Umek zaindu, merienda eman eta etxea eman eta bitarten gurasok in behar duen hori itteko aprobetxau... ez dakit.

Edurne: Goiekiko bileran izan ginen, eta hauxe egiteko asmoa zuten, edadekok haurrei gauza desberdinak eskeintzea eta haurrek truke edadekoei. Guk egiten duguna, alegia! Baino, Goikeiko beste bi bileratan kale egin genuen, zuekin eskolan puntu tailerrean ginelako.

Tere: Beste herri batzuetan ere egiten da, Orion, esate baterako.

Tere: Esan genien jungo ginela beste bilerata, guk hau eskolan itten deula eta zerbait bazekiten.

Tere: Baina, ez hori bakarrik, baizik eta edadetuontzako itten dien beste gauza asko ere bai. Gaur ere egie da Jakintzatik 14-15 urteko umek datozela eta zuekin egon eta gero bidetik datoztela Itsasondo garai baten eta gaur nolakoa dan jakiteko. Beste batzuk Lazkao aldera eta Beasain aldea jungo die. Ikusiz nola zan garai baten, etxek eta zer zeon, frontoie ta nola etzien... Eta gaur ere baiezkoa esan diegu, baino honen ondoren.

Zuen egunerokotasunean, eskolara gugana etortzeaz gain, zer egiten duzue?

Tere: Ni egunero goizen jeiki, etxeko bazkari prestatu eta gero asten lau aldiz, pistina bi egunetan eta beste bitan gimnasioa, Beasaina juten naiz, goizetan. Eta arratsalden gehienetan zerbait deu, Beasaina jubilatun bilera deula, honea eskola dala, Ttipi-Ttapa... Edadetukontzako ibiltzea da Ttipi-Ttapan helburue, baina nere ikuspuntutik edadetu-edadetuk ez die juten, zahartxogok edo ezinen daudenak, laguntza behar dutenak ez die juten eta gu bezelako jendea juten da eta itten deu hemendik Ordizira edo Legorreta eta buelta. Gero, horren gainen Udaletxek, Ongizatekok, laguntzen digue, eta itten deu kafetxo bat hartu edo elkarten bokadillo batzuk prestatu eta jan. Memori Tailerrakin ere hasi ginen; Ttipi-ttapa in ondoren buru lanketa bat itten. Dagoeneko bukatu deu, baino Donostitik neska bat etortzen zan prestatutako materialakin guri hori ittea eta oain prestau behar deu haren materialakin aurea seittu edo ongizateko norbaittekin, bolondres itteko. Netzako hobe norbait bolondres jartzea, nik behintzet nahiago det besten tarten izatea eta norbaitek agintzea.

Eduene: Gu egunero etxen koadrilatxo bat bazkaltzeko elkartzen gara, eta nik sukaldari denbora dextente eskeintzen diot. Gero, beti dago zerbait egiteko, josteko zerbait, etxea garbitu edo eta bileraren bat edo mediku txandaren bat...

Nere bilobak txikiak zirenean, amona oso gaixorik zegoen, eta Irati lehenengo eskolan utzi eta Uxue kotxe kapotasen zeola paseo bat ematen genuen, amona atenditu, egunero horrela ibiltzen nintzen. Hurrekin frontoia joan eta hantxe ume txikiakin ginen batzuk elkartzen ginen eta horrela... Aspertu, behintzat, ez ginen egiten!

Tere: Egie da ni antzerkie daunen, Donostin antzerkie ikusteko modue badau edo hola, jun itten gea. Ez da bakarrik bestentzako itten detela, neretzako re itten det!

Eduene: Niri irakutzea asko gustatzen zait, eta ordun, asko gustatzen zaidanez, liburutegitik, txartelarekin, liburuak hartu eta tartetxoren bat daukadanean irakurri egiten dut. Ez naiz batere aspertzen. Eta nere bilobekin ikaragarri ondo pasatu dut. Orain desberdina da, handitzen ari dira, baino beste modu batean ere bai. Ume maitagarriak izan dira eta izaten jarraitzen dute.



Hurrengo ikasturtean gogoia al duzue berriz ere etortzeko?

Tere: Bai, negatio bai, ni ondo bagare eta jakinan gainen eta andereñokin prestatzen badeu, bai noski. Bixenta re oso gustoa etortzen zan, baino ordutegi hortan etzitzaion ondo etortzen, eta aber beste modu batea moldatu gaitezkeen.

Eta zuek Ordiziara bazoazte?

Tere: Bai, urduri samar gaude!

Nere alaba kurtsoko bakarra zan, eta Ordizira bakarrik jun zan hemendik. Nik beti hartu-eman izan nun Zaldibiko jendekin, baino egun bat bakarrik pasa zon edo bi... seittun launek in zitun! ■



Goiko frontoia

Haurren herriaren galdeketa

Haurren Herriak bideratutako galdeketa bukatu dugu. Bi helburu nagusi zituen galdeketa; alde batetik, datorren ikasturteari begira kajoian ditugun gaietatik herritarrentzat zeintzuk diren lehentasunezkoak jakitea, eta beste batetik, Haurren Herria taldearen zergatiaren inguruan hausnarketa abiatzea.

Lehenengoari dagokionez, esan behar da nahiko garbi ikusten dela herritarrek ze gai kokatzen dituzten lehentasunen artean; 1.- Eskola eta goiko frontoiaren espazioa egokitu jolas garairako, 2.- Jangela eta 3.- Osasungintza (pediatra).

Bigarrenari dagokionez, hiru ondorio nagusi ateratu ditzakegu:

- Haurren Herria talde bezala oso beharrezko ikusten da.
- Herritar guztientzat zabalik dagoen taldea izan behar du. Eta herritar guztientzat lan egingo duena.
- Herri-eztabaidak bideratu eta erabakiak hartzeko baliatu behar den talde bat izan beharko luke.

Dena den, haustarketa abiatu baino ez dugu egin, eta horrek esan nahi du oraindik ere gauza asko argitu eta eztabaidatu daitezkeela Haurren Herria taldearen inguruan. Beraz, gaia itxi gabe, kontuan hartuko ditugu herritarrek emandako aurreneko iritzi hauek.

Foroan parte hartzen dugunok eskertu besterik ezin dizuegu egin parte hartu duzuen guztioi. Guk lanean jarraituko dugu, eta noski, datorren ikasturte hasieran izango duzue gure berri. ■





Aurtengo haurrak agurtu eta berriei harrera egiteko unea

I kasturte bukaera iritsi zaigu aurtun ere, eta horregatik, gure besoetatik pasa eta eskolara joan diren eta hurrengo kurtsoan doazen haurren memoriatar bat egin nahi genuke oraingo honetan. Zein polita den gogoratzea 2009an haurreskola berria ireki genuenean izan genituen kezkak eta urduritasunak, zer material erosi, nola antolatu gela... Zein polita den ikustea orduan hartu genituen lehen haurrak gaur egun nola dabilzan eliza ondoko frontoian palaz jotatzen. Eta urtez urte gure haurreskolara etorri diren haur guz-

tiak nola doazen handitzen! Batzuk gurekin gogoratzen omen dira, beste batzuk ez; baina, dudarik gabe, guk oso gogoan ditugu bakoitzak eman zituene lehen pausoak eta esan zituen lehen hitzak, beraien bihurrikariak, irribarreak eta koxkadak!

Aurtun ere badoazkigu eskola desberdinetara Eneko, Oier, Noemi, Inhar eta Jon. Musu potolo bat Miren eta Amaia ren partez, eta ondo-ondo segi dezazuela zuen etapa berrian!

Eta jakina, oso ondo pasa udako oporretan! ■





.....

Haur eta gazteak: udara, oporrez disfratatzeko ekintzak

.....

Haurrak

Itturri txiki guraso elkarteak eta udalak elkarlanean antolatu dituzten udalekuetan 40 haur eta 4 begirale ibili dira. Denetarik ekintzak egin dituzte, eta haurrek primeran pasatu dute.

Nerabeak

Karreape gaztelekuak, urtero bezala, 10-17 urte bitarteko neska mutilentzat ekintzak antolatu ditu. Aurten, Hernaniko igerilekuetara, Olaberriko karretara eta Sobron abentura parkera joateko aukera izan dute. Herriko 14 nerabek eman dute izena. ■





Goierriko eskola txikien festa

Txabaloren teilatu berria

Eskolako baratzako txabolak, auzo-lanean, badu teilatu berria eta kana-loia euri ura jasotzeko.

Eskerrik asko koadrilla!! ■



Goierriko Eskola Txikien festa

Aurten, Goierriko Eskola Txikien festa, maiatzaren 14an ospatu zen, Itsasondon. Olaberria, Zerain, Ezkio-Itsaso, Itsasondo eta Gabiriako ume zein gurasoak elkartu ziren festa horretan.

Ongietorri ekitaldia testigu pasatzearekin egin ondoren, taldeetan banatu eta jolas kooperatiboak haur eta helduek parte hartuz egin ziren. Eguraldia lagun, giro polita sortu zen.

Amaitzeko, frontoian, afari-merienda elegantea egin genuen, musikaz giroturik. Berrir ere eskerrak eman behar bertaratu eta lagundu zuten guztiei, afari-meriendarako jakiak ekarri zituztenei, eta Lourdes, Kaxintane eta Nautikori egindako ekarpenengatik. Mila esker denoi. ■

Ikasturte bukaerako festa

Ekainaren 17an, urtero bezala, ikasle, irakasle eta gurasoak elkartu ginen, ikasturte amaierako festan.

Goizean, eskolan, hurrek irakasleekin ekintza desberdinak egin zituzten, eta baita hamaiketako gozoa ere.

Ondoren, kalejiran, herria alaituz plazara jaitsi eta bertan 6. mailakoek bertso saioa egin zuten, aurten landutakoa erakutsiz.

Jarraian, bazkaria hasi zen, bi txandatan: lehenik haurrak eta ondoren helduak.

Behin amaituta, Itsasondoko Euskal Dantza taldeak saioa burutu zuen, bazkal ostea girotzeko.

Urtero bezala, aurten Urkipe eskolan bukatu eta beste etapa bat hasiko duten ikasleei agur omenaldia egin zitzaizen.

Bukatzeko, musikak lagunduta, meriendatxoa ere prestatu zuten! ■



Ikasturte bukaerako festa

Virginia Da Graça

*Mozambiken jaio zen, 1983an.
Han bere familiarekin bizi zen.
25 urte zituenean, Euskal Herrira etorri
zen Mikelekin Itsasondon bizitzera,
Maitek, beraien alabak, bi urte zituela.
Asteartero Donostiara joaten da,
30 bat neskako talde batekin
(euskaldunak eta afrikarrak), danborrekin
musika afrikarra ensaiatzera.
Hemen, Gina izenez ezagutzen dugu.*



Noiz etorri zinen Itsasondora?

2009an, orain dela zazpi urte.

Zergatik erabaki zenuen zure herrialdetik joatea? Eta zergatik Itsasondora?

Egoera oso konplikatua zen, eta Mikel Itsasondokoa da.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egunari buruz?

Paisaia kontraste handikoa, mendiak eta dena oso berdea iruditu zitzaidan.

Utzi al dituzu senideak bizi zinen herrialdean?

Bai, zortzi neba-arrebak, sei ahizpa eta bi neba.

Zein lanbide zenuen zure herrialdean?

Sukaldaria nintzen, Snak-bar Maite tabernan.

Zer lanbide duzu hemen?

Adineko pertsonak zaintzen ditut.

Zer nabari duzu faltan?

Hango janaria: barazkiak eta arrain lehorra.

Zer ez zaizu gustatzen hemen?

Eta zer duzu gustuko?

Negua ez zait gustatzen, oso luzea egiten zait. Itsasondok duen lasaitasuna dut gustuko.

Zein zaletasun dituzu?

Musika entzutea.

Janari bat.

Hangoa: arrain lehorra.
Hemengo: patata tortilla.

Itsasondoko/Goierriko txoko bat.

Arama asko gustatzen zait.

Amets bat?

Urte asko bizitzea osasuntsu.

Jaso duzun oparirik bereziena?

Maite, alaba.

Zeri diozu beldurra?

Sugeei. Hotzikara ematen didate.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Gauza asko daude irribarrea eragiten didatenak.

Itsasondon biziko ez bazina?

Araman edo mendiko herri batean biziko nintzateke. ■



Itsasondo, herri koloreanitza

Itsasondo herri anitza da, eta aniztasun hori, neurri batean, herritarren jatorri ezberdinek osatzen dute. Aniztasun honen inguruko argazki txiki bat aterata, 2015eko eta 2016ko apirila bitarte 45 pertsona errolatu dira herrian. Horietatik 10 haur eta nerabeak dira, eta besteak helduak. Jatorriari dago-kionez, Euskal Herriko beste herrietakoak eta errumaniarrak, hondurastarrak, portugaldarrak, argiarrak, marrokiarrak, pakistandarrak eta nigeriarrak ditugu (azken bi urte hauetakoak bakarrik ikusita). Herri koloretsua dugu, beraz.

Ongizate Lantaldekoak Itsasondora etorri berri diren guztiei ongietorria emateko zerbait egitea pentsatu genuen, eta horretarako, baliabide gida bat prestatu dugu. Baliabide gida honek herrian dauden zerbitzu, elkarte eta ohitura nahiz festak bildu nahi izan ditu. Horregatik, bertan udaleko zerbitzuen inguruko informazioa, udaleko ordezkari zein herritarren antolatze modua, herriko elkarteak, herriko festak eta ohiturak jaso dira. Liburuxka txiki bat argitaratu dugu informazio honekin guztiarekin euskara hutsen, euskaraz eta gaztelaniaz eta euskaraz eta ingelesez, momentuz.

Helburua eta egitasmoa bera, ordea, baliabide gida sortzeaz haratago doa. Herritar etorri berriei ongietorria emanez, saio informatiboak antolatu nahi ditugu urtean zehar. Bertan, informazioa zuzenean eskaintzeaz gain, etorri berriekin harremanetan jarri eta

herriko sarearen parte izatea nahi dugu. Bide hone-tatik, saio informatiboa antolatzen ari gara hurrengo ikasturterako, eta bertan udal langileek, elkarteetako kideek, eskolak eta udal arduradunek parte hartuko dute. Herritarrek ere parte hartzea oso interesgarria iruditzen zaigu, etorri berriekin zubi lana egin eta herriko festa eta ohituretan parte hartzen duten lehen aldietan, behintzat, ondotik laguntzeko.

Gure asmoa da egitasmo xume honetatik hasi, hutsuneak aztertu, beharrak ikusi eta apurka-apurka bidea egitea, aniztasunean eraikitako herria osatu arte. Denon artean eta elkarrengandik ikasiz komunitatea sortu nahiko genuke, eta horretarako ezin bestekoa da denok parte hartzea! ■



Tipi Tapa ekimenak jarraitzen du

Lerro hauen bidez, Tipi Tapa ekimenak abuztuan “atse-den” hartuko badu ere, irailetik aurrera berriz martxan jarraituko duela gogorarazi nahi dizuegu. As-tearte arratsaldetan plazan elkartu eta ibilaldi motz zein luzeak egiteko aukera izango duzu lagunartean, bakoitzak bere neurriko ibilbidea, noski.

Aurten, Tipi Tapa ekimenaren barruan zenbait ekintza antolatu ditugu, hala nola gimnasia ikastaroa, elikadurak gaixotasunekin duen lotura azaltzen digun hitzaldia, alzheimerren inguruko hitzaldia, memoria tailerrak...

Irailetik aurrera ekintza gehiago antolatzeko asmoz gabiltzala aurreratu nahi dizuegu eta baita astear-teko paseoetan parte hartzera gonbidatu ere, paseoan eta lagunartean ibili ondoren, aldarte hobean eta gauza gehiago egiteko gogoz sentituko baitzara. Ahalegin handirik egin gabe, eta zure herrian paseoan ibiliz, OSASUNARI me-sede handia egin diezaiokezu.





Alzheimer inguruko hitzaldia



Memoria lantzeko tailerra

Elikadura eta osasuna

Apirilaren 26an, Itsasondoko Tipi Tapa ekimenaren barruan, Ongizate batzordeak antolatutako GAIXOTASUN EGOERAN, OSASUNA BERRRESKURATZEA, NORK BERE BALIABIDEEKIN hitzaldia izan genuen Itsasondoko kulturgunean. Hitzaldia Garbiñe Etxaniz elikaduran adituaren eskutik izan genuen, eta hemendik eskerrak eman nahi dizkiogu eskaini zigun hitzaldiagatik. Bikaina benetan! Baita interesa izan eta gerturatu zineten herritarroi ere; eskerrik asko!

Hitzaldia Tipi Tapa ekimenaren barruan antolatutako ekintza bat izan zen, Ongizate batzordetik bideratua.

Hitzaldia: Alzheimer gaixotasuna ezagutu dezagun

AFAGI Gipuzkoako Alzheimer gaixoen senitartekoen elkarteko kideek alzheimerrari buruzko hitzaldia eskaini ziguten maiatzaren 10ean, 18:30ean, udaletxeko kultur gunean. Gaixotasuna bera eta gaixotasuna dutenekin batera bizitzeak zaintzaileengan sortzen dituen arazoez hitz egin zigun Naroa Diazek, AFAGIko gizarte langileak.

Beste gaixotasun neurodegeneratibo batzuetan bezala, alzheimerrak garunari eragindako kaltea atzerazina denez, sintoma arin batzuk agertu bezain laster prozesuaren bilakaera geratzea edo geroratzea litzateke onena.

Horiek guztiak eta beste zenbait konturen bueltan hitz egiteko aukera izan genuen gerturatu ginenok.

Hitzaldi hau ere Tipi Tapa ekimenaren barruan antolatutako ekintza bat izan zen, Ongizate batzordetik bideratua.

Memoria tailerrak

Maiatzaren 24an eta 31n eta ekainaren 7an memoria lantzeko tailer praktikoak egin genituen Bizi Nahi jubilatuen elkartean, tipi tapa pasearen ondoren, 18:00etan hasi eta 19:30ak arte.

Bertan elkartu ginenok oroimena lantzeko aukera izan genuen modu erraz eta praktikoan. Lehen bi saioak AFAGIko kide Naroa Diaz gizarte langileak gidatu zituen, eta azkena Ongizate batzordeko bolondresak. Bertan, hainbat ariketa eta aholku eman ziren memoria landu eta nola praktikatu ikasteko, oroimena ezagutu, hobetu eta sendotzeko helburuarekin.

Urritik aurrera, memoria tailer gehiago antolatuko direla jakinarazi nahi dizuegu; beraz, adi deialdiei eta animatu! ■



Garbiñe Etxaniz, elikadurataz hizketan

Jubilatuak, txangoz-txango

Pasaiaira irteera

Ekainaren 14an, jubilatuek Pasaiaira egin zuten txangoa. 24 bat lagun elkartu eta trenean Errenteriaraino joan ziren. Bertatik, tipi-tapa, Pasaiaira iritsi ziren. Santo Kristo basilika bisitatu zuten, eta bueltatxo bat eman ondoren, bertako jubilatuenean bapo bazkaldu zuten. Arratsaldean eguraldiak okerrera egin bazuen ere, egun ederra igarota itzuli ziren etxera Bizi Nahi elkarteko jubilatutak.

Bingoa

Ekainaren 30ean, azkeneko ostirala izanda, Bingoa egin zuten Bizi Nahi elkartean. Oraingo honetan, 10 bat lagun elkartu ziren, eta giro ederrean pasatu zuten arratsaldea. Elkartetik gogorarazi nahi dugu, irailean herriko jaiak direla, eta bingo herrikoa egingo dela 15ean (osteguna), herriko jaietarako girotzeko; beraz, denok zaudete gonbidatuta!

Alegiara txangoa

Uztailaren 7an, Alegiara egin zuten txangoa Bizi Nahi elkarteko kideek. Goizeko 11:00etan trena hartu eta Tolosaraino joan ziren. Bertatik, ttipi-ttapa, Alegiako sarreran dagoen tabernara iritsi ziren eta ha-maiketako egiteko geldialdixoa egin zuten. Ondoren, indarberrituta, berriro bideari ekin zioten, eta Alegia herriraino joan ziren. Bertan bazkaldu eta arratsalde partean Itsasondora itzuli ziren, batzuk oinez eta besteak trenez.

Hurrengo txangoa uztail bukarrerako antolatuko dutela aurreratu digute; oraingo honetan Larraitzera joango dira. Sasoiko ditugu, gero! ■





Nola hitz egin dezakegu haurrekin heriotzaz?

Aurreko maiatzaren 16an, “Bidegi” elkartetik Mila Rodrig ez erizain ohia etorri zen, heriotzaren eta doluaren inguruko hitzaldia ematera.

Helburu nagusia da heriotzaren eta doluaren gaiak kanporatzea, gure ikarek aurre egitea eta gure seme-alaben galderei erantzun bat emateko gai izatea.

Haurrak bizitzarako hezten baditugu, heriotzarako ere egin beharko genukelako.

Lehen naturaltasun handiagoz bizitzen zen heriotza, hildakoak etxea geratzen ziren denbora batez eta familiako kideek agurtzeko aukera zuten, baita bere gaixotasuna eta itzaltze prozesua bizitzeko ere.

Gaur egun, ospitaletan edo tanatorioetan bizitzen dugu prozesu hori, haurrengandik urrun.

Maite dugun pertsona baten galera, tristuraz, ikaraz... bizitzen dugu, eta hori nahi gabe gure haurrei TRANSMITITZEN diegu, eta hortaz KONSZIENTE izan behar dugu.

Haurrek guk uste duguna baino lehenago pentsatzen dute heriotzarengan, eta horren inguruko galderekin etortzen direnean ezin ditugu bakarrik utzi, zeren beraien fantasiak beti dira errealitatea baino askoz bortitzagoak.

Garrantzitsua litzateke baita ere, heriotzaz hitz egitea inongo galerarik bizitzen ez gaudenean; gertaera hori eman baino lehen aurreratzea. Horrela, jakin dezakegu haurrak ze aurreiritzi dituen heriotzaren gaiari buruz.

KONSZIENTE izan behar dugu, haurrak, jaiotzen denetik, dolu ezberdinak bizitzen dituela, eta naturalak dira: beste neba-arreba baten jaiotza, DESTETEA...

Heriotzaren gaiak lagundu beharko liguke benetan balaratzen bizitzak eskaintzen dizkigun opari guztiak.

Dolu ezberdinen aurrean haurrei erantzun bat eman behar diegula adierazi zigun, eta erantzun hori baldintzatua dagoela haurren adinaren arabera; heriotzaren kontzeptua oso ezberdin bizitzen delako momentu ezberdinetan.

Adibidez, 0-2 urte bitartean, oso txikiak dira, eta oso baliabide gutxi dituzte aurre egiteko galerari, batik-batik ama hil bada. Egonkortasuna eta ahal den lasaitasun gehien eskaini behar zaio.

2-6 urte bitartean, heriotzaren hitza erabiltzen du, baina ez du oraindik erabat ulertzen.

Uste dute hiltzen den pertsona bueltatu egin daitekeela; haurrentzat, heriotza bidaia bat edo amets bat bezalakoa da.

Errudun sentitu daiteke aurretik hildakoarekiko izandako sentimendu eta ekintzengatik.

Une horretan adierazi behar zaio pertsona horren gorputzak dagoeneko ez duela funtzionatzen, ez duela goserik, ez hotzik, ez berorik... hilda dagoela.

Eta hil den pertsona hori oso, oso, oso gaixorik zegoela esateak laguntzen die.

6-10 urte bitartean, heriotza munstro bat edo pertsona bat bezala sinbolizatzen du, eta ulertzen hasten da heriotza betirako dela.

Bere jokuetan agertuko da, hiltzen dela eta besteak ere hilko dituela...

Garai honetan, argi eta garbi hitzegin behar zaio heriotzaren inguruan.

NERABEEK heriotzarekiko urduritasuna adierazten dute, eta hilezkorak direla uste dute.

Gertukoren bat hiltzen bada, batzuetan berarekin joateko desioa agertzen zaie.

18 urterekin, hildakoaren espiritua edo aura sentitzen dute.

Noiz eta nola adierazi haur bati gertuko baten heriotza? Lehenbailehen. Gertutasunarekin, garbi eta goxo hitz eginez eta esanez ez dugula berriro ikusiko.

Honako esaldiek laguntzen dute:

“Zurekin gaude eta maiteko zaitugu”

“Beti egongo da gure bihotz eta oroitzapenetan”

Honako hauek, berriz, nahasmenera eramanez dezakete:

“Ez negarrik egin, ez triste egon...”

Hiletara joan nahi badu, adierazi lehenbizi zer gertatuko den bertan, eta gogorik ez badu joateko, ulertu eta bere erabakia errespetatu.

Haurrari erakutsi behar zaio galerak bizitzaren parte bat direla, eta naturaltasunez bizi behar ditugula.

Dolua ez da gaixotasun bat, baina gaixotasun bihurtu daiteke gaizki eramanez bada.

Dolua zerbait naturala da, ebakiondo bat utziko diguna, baina sendatuko dena.

Liburu gomendagarri bat: “El niño ante la muerte”, Monserrat Esquerdarena.

15 lagun egon ginen, eta bukaeran, aukera egon zen galderak egin eta esperientziak kontatzeko.

Orokorrean, jendea oso pozik eta interesatua ateratzen gaiekin; beraz, jarraipena izatea espero dugu.■



30. Ibilbidea

Olaberriko hirigune inguratuz

Olaberriko plazatik iparralderantz hasiko dugu ibilbidea, hilerirantz. Puntu hone-tan, hilerria igaro eta segituan, ezkerre-tara egingo dugu aurrera, mendi hegalean barrena bazkalekuak eta basoak zeharkatuz, Aiz-pea eta Etexaga baserrien ondotik igarotzeko.

Matsalde, Balda, Iriarte eta Arazola baserrien ingurumarietan gaude orain. Bertako luraren ka-litate ezin hobeak nekazaritza eta abeltzaintza-rako oso aproposa bihurtzen du zonalde hau. Aldasoro baserriraino eramango gaitu.

Duela gutxi berritu duten Aldasoro baserria-ren alboan gaude. Baserritik 50 metro ekialdera Santikutz ermita ikus daiteke.


Leku honetatik eskubitarra jarraituz gero, Do-nejakue bideak Aranguren baserrira eramango gaitu.

Aranguren baserriaren alboan gaude, Olabe-rriko hainbat landabideren elkargunean.



Hemen, ezkerretara hartuko dugu, eta ibilbide xamurragoa egin nahi badugu, ekialderantz egingo dugu, Lazkaoraino heltzen den Sustraitz ubidearen ur ertza jarraituz

Otsoategi baserriaren ondoan gaude. XVI. mendeko eraikuntza da hau. Hego-ekialdeko etxaurrean, udalerrri osoan dagoen armarri ba-karra ageri da, izena ematen dion Otsoa familia-rena, hain zuzen.

Leku honetatik, Olaberria eta Lazkao batzen dituen errepidea zeharkatuko dugu, gero ezke-rretarantz joan eta hirigunera igotzen hasteko. ■



Iraupena:
Olaberria - Olaberria:
Ordu eta 45'





Ez han ez inon

Gu ez gara GURAS.O.S, baina bai gara gurasoak. Kezkata dauden gurasoak, gainera. Perimetrotik kanpo gaude, baina norbait bizi daiteke 15 kilometrotara; gure lehengusuak, osaba-izebak, lagunak edota seme-alabak. Arrisku bizian bizi direla jakinda, gu ez, gu ez gara lasai bizi, eta horregatik argi eta ozen esan nahi dugu: EZ HAN ETA EZ INON.

Eta horren argi esan nahi dugu, gizaratean eztabaida ematen ari delako, eta oso iritzi kontrajarriak ikus-

ten ditugulako. Adituek, medikuek eta herritarrek oso argumentu desberdinak jartzen dituzte mahai gainean, batzuek alde, beste batzuek kontra. Batzuek esaten dute ez dela ekonomikoki emankorra, besteek zerbait egin beharko dugula asko berziklatuta ere gelditzen den zaborrarekin (errefusarekin). Beste batzuek esaten dute oso kaltegarria dela osasunarentzat, eta beste batzuk ez dela hainbesteko, kotxeek sortutakoarekin konparatuz gero.

Guk esaten duguna da ondo da-

goela hau guztia eztabaidatzea, baina gure osasuna, eta bereziki gure umeen osasuna argudio guztien gainetik dagoela. Horregatik, bi galdera ditugu, oso zehatzak eta erantzuna behar dutenak:

1. Kaltegarria den edo ez ziurtatzen ez den bitartean, nork jarriko luke errauskailu bat bere herrian?
2. Arazo hau ere ez al genuke itxi beharko adostasunez eta kontsentsuz? Galdetuko al diete perimetro barruan dauden herritar guztiei?

Erantzunik ez dagoen bitartean, guk kezkatuta jarraituko dugu, eta ondorioz, errauskailuaren kontra lanean, perimetro barruan dauden guztiei elkartasuna adieraziz.■

**Itsasondoko GuraS.O.Sen
lanaren aldeko
akanpadako kideak**

Erraustegiak minbizia areagotzen du

Uztailaren 2an Koro Zabaletak eta Marta Barandiaranek eman zuten hitzaldian argi geratu zen; ikerketa ugari ondorioztatu dute errauste planta baten inguruan bizitzeak minbizi kasuak areagotu ditzake.

Koro eta Marta OEITko (Osasuna eta Erraustegia Ikerketa Taldea) kide dira, eta talde hau ikerketa zientifiko batzuek errausketari buruz dioten datuak plazaratzen ari da. Beraien nahia ez da liskarra sortzea, baina bai herritarrei azaltzea aztertutako ikerketa ez-

bedinek nabarmentzen dituzten datuak, azpimarratuz ez dutela gatazkarako interesik.

Datu esanguratsuenen artean honako hauek nabarmendu nahi ginituzke:

Minbizi mota:	Heriotzaren ordez:
Emakumeengan urdailekoa	100 / 138
Emakumeengan tiroidekoa	100 / 205
Emakumeengan hezurretakoa	100 / 289
Gizonezkoengan hezurretakoa	100 / 1.240
Obulategikoa	100 / 195
Emakumeengan garunekoa	100 / 205
Gizonezkoengan besikulakoa	100 / 143
Gizonezkoengan biriketakoa	100 / 119
Gizonezkoengan pleurakoa	100 / 198

Eta abar luze bat...

Datu hauek ikusita, zalantzarik geratzen al zaizu?

**BURUA DUENAK EZ DU ERRAUSTEGIRIK NAHI
BERE HERRIAN, ETA BIHOTZA DUENAK EZ DU BESTE
INOREN HERRIAN NAHI.■**





Lan taldeen egindakoak eta egitekoak

Egindakoak

- Tipi Ttapa programa indartzeko ekintzak antolatu dira urtarila-maiatza bitartean.
GIMNASIA IKASTAROA
HITZALDIK (Elikadura, Alzheimerra)
MEMORIA TAILERRA
TTIPI TTAPA HERRIKOIA (gaztelekutik)
- Gutunak bidali dira etxeetara, adineko jende gehiago animatuz, Tipi tapa ekintzetara, eta printzipioz eragina izan du deialdiak.
- Irailetik aurrera ekintza gehiago antolatzeko ardura hartu du batzordeak.
- Dokumental-pelikula zikloa antolatu da, eta aurrean hilean behin ematea adostu da. Uztailera saioa kanpoan izan da.
- Desfibriladorea erabiltzen ikasteko beste saio bat antolatu da.
- Berdintasun alorrean zenbait ekintza antolatu eta aurrera eramanez dira:
MARTXOAK 8
MATXISMO TAILERRAK
- Harrera plana garatu eta lehen harrera bilera egin da (ekainak 21), 2015-2016. urteetan herrira bizitzera etorri direnekin.
- DENBOAREN BANKUA. Bi dimentsiotan lan egiteko tresna aurkeztu da:
1. KOLEKTIBOEN ARTEKO SAREA, herriko talde eragile guztien topaketa gunea litzateke (batzordeak, elkarteak...) eta herritar denek parte hartu ahal izango lukete kolektiboan izenean. Sare honen bidez, elkarren berri eman, elkar ezagutu eta auzolana bultzatuko litzateke. Taldeen arteko kohesioa eta herri mailako filosofia globala bultzatuko lukete interesak, beharrak eta ikuspuntuak elkarbanatuz.
- 2. BANAKAKOEN ARTEKO SAREA (mikro) modu xume batean hasteko ideia jarri da mahai gainean eta pauso ezberdinak aurreikusi dira:
- SENSIBILIZAZIOA | DEIALDI INFORMATIBOA | DEIALDIA INTERESA DUTENEI | ANTOLAKETARAKO ERABAKIAK: TOKIA AUKERATU, MODUA...:
- Siriar errefuxiatuei laguntzeko materiala bildu (uztailak 1) dugu, ITSASONDO-SIRIA ekimenaren barruan.
- Errauskailuaren inguruko artikulua idatzi du O.E.I.T taldea aldizkarirako, eta hitzaldia emateko eguna zehaztu da.
- Itsasondo 2.0. aldizkarian atal berri baten ardura hartu du batzordeak. Kanpotik bizitzera etorri direnei elkarriketak egingo dizkiegu.

Ongizatea

Egitekoak

- Tipi Taparekin jarraitzeko ekintzak antolatzen jarraitu. Diru laguntzak eskatu.
- Dokumental - film zikloari buelta bat eman eta berriz jendearen interesa nola piztu aztertu.
- Desfibriladorea erabiltzen ikasteko ikastaroekin jarraitu. Gutxienez urtean bi ikastaro antolatu.
- Urriaren Harrera Planaren 2. billera egin.
- Denboraren Bankua modu xume batean martxan jarri.
- 2017ko aurrekontuak landu.

Egindakoak

- Beko kaleko proiektua eztabaidatu eta bultzatu da. Aldundiko errepideetako arduradunekin elkartu gara eta Beko Kalen norantza bakarra jartzeko beharko litzatekeen irteera non eta nola egin kontrastatu dugu.
- Beko kanpako topografikoa egin da, eta hurrengo pausoa Plan Partziala egitea izango litzateke.
- Agenda 21aren kudeaketarako programa informatikoa martxan jartzeko lanetan hasi gara. Bertan zehaztutako ekimen asko aurrera eraman badira ere, beste batzuk bidean ahazteko arriskua dagoela ikusi da eta sistema informatiko honek jarraipen errazagoa egiten lagunduko digu.
- Itsasondo.eus webgunean ingurumena ataleko infomazioa osatzen dabil Aranzadi.
- Organikoen kudeaketa integrala herrian bertan egiteko aukera aztetzen dihardugu, eta proposamenak lantzeko taldetxo bat osatu da.
- ENERGIA AZTERTZEKO EKINTZAK: Itsasondoko hainbat eraikin publikotako energia kontsumoa aztertu da: eskola, gaztelekua, jubilatuen lokala eta osasun etxea. Energia aurrezteko egin daitezkeen lanak martxan jarri dira.
- Frontoiarentzat irisgarritasun alternatibak aztertu eta eztabaidatu dira.
- Urkiko aterpetxeak herrian egiten

diren txango eta ibilbideekin harreman zuzena izan dezakeela uste da, eta ahal den neurrian proiektu hau bultzatzea proposatu da.

- Herriko plazan bizikleta eta bestelako gauzentzako gordailu publikoa instalatzeko aukera aztertu da.
- Zubingo zaborte-gia-erentzako irtenbide bat bultzatzen saiatu gara, jakinda ez dela udalaren ardura.
- Eskola berritzeko proiektu ezberdinak aztertu ditugu. Jaurilaritzako Hezkuntza Sailarekin harremanetan gaude kontu hau bideratzeko.
- Herriko plazako elementuak hobeto antolatu nahi ditugu. Horretarako, bankuen konfigurazio berri bat bultzatu genuen. Bestalde, ibilgailuen abiadura murrizteko alternatibak aztertzen ari gara, eta udaletxe aurreko aparkalekuaren eta autobus geltokiaren konfigurazioa nola hobetu eztabaidatu da.
- Herriko ur depositotik ateratzen den tuberia nagusia berritzea bultzatu da. Alternatiba ezberdinak eztabaidatu dira eta espero dugu aurten burutzea.

Lurralde antolamendua

Egitekoak

- Landa eremuan egin diren aurrerapen, azterketa eta inbertsioen inguruko informazioa jaso.
- 2017ko aurrekontuak landu.
- Gune arriskutsuak konpondu (eskola ingurua, eskailerak, trenbidea).
- Oinezkoentzat irisgarritasuna landu herriko zenbait puntutan.

Egindakoak

- **HEZKUNTZA**
(otsaileko bileran)
ESKOLAKO PARKEA: Parkea berritzeko proiektu zein lanak hasita daude. Gai honetatik jolas garaiaren inguruko hausnarketa egiteko nahia aterata da.
BATZARRA: lazko urtariraren 14an partaidetza handiko batzarra egin zen, eta bertan ekarpen asko egin ziren aurrera begira jorratu beharreko gaien eta beharren inguruan. Berriz ere lan ildo horri eutsi eta prozesu parte-hartzaile baten bitartez, ahalik eta eragile gehienen partaidetzarekin, zerrenda horretako proposamenak lehenetsi eta aurtengo eta hurrengo ikasturterako plangintza egitea pentsatu da.
- **BIZI NAHI ELKARTEA**
(martxoko bileran)
BAZKIDE GEHIAGO EGIN: aldizkarian atera den artikulua eta etxeetara bidalitako gutunaren bidez sei bazkide gehiago lortu dira.
ELKARTEA NOLA INDARTU: pixkanaka-pixkanaka ekintzak goraka doaz, geroz eta ekintza gehiago antolatzen dira. Hala ere, oraindik parte-hartzea indartu behar dela pentsatzen da.
- **TTPI TTAPA:** Ongizate batzordean ari dira gaia lantzen. Irailetik aurrera ekintza gehiago izango dira. Hala ere, ez da ahaztu behar astearteroko paseoak jarraitzen duela.
- **GURE ESKU DAGO**
(apirileko bileran)
Ekainaren 5eko galdeketa dela eta, herrian mugimendua sortzeko eta zenbait ekintza, bilera... aurrera eramateko Gure Esku Dago lan taldea sortu da.
- **HERRIKO JAIK**
(maiatzeko bileran)
Festa batzordean behin eta berriz ateratako gai "korapilatsuak" landu dira:
 1. Parte-hartzea: animatu jendea parte hartzera, ez soilik ekintzetan, baita antolaketa ere.
 2. Sariak: garrantzia parte hartzeari eman nahi zaio, beraz, sariak parte hartzaile guztientzat izan beharko lirateke, ez soilik irabazlearentzat. Filosofia hau haurrekin (playback...) zein helduekin (paella lehiaketa) erabili beharko litzateke.
 3. Barrakak: prezioaren inguruan eztabaida, garestiak zirelako. Honen inguruan ea zerbait egin daitekeen. Musika euskalduna jartzeko esan eta ekintzarik solapatu ez daitezen saiatu.
 4. Musika: musika euskalduna sustatu orokorrean: txosnak, playback-a, barrakak...
- **EUSKARA** bultzatzeko talde bat sortu da. Ez dira sarri elkartzen... Ikasturte hasieran helburu dexente jarri ziren, eta batzuk pixkanaka bada ere betetzen ari dira, adibidez, murala.

Herri bizitza

Egitekoak

- **HERRI BIZITZA BATZORDEA** indartzen jarraitu.
- Auzolana.
- 2017ko aurrekontuak landu.
- **EUSKARA TALDEA** indartu.

Iritsi da zuntz optikoa!

XXI. mendeko konexio digitala iritsi da azkenik gure herrira: internet azkarra eta kablezko telebista.



Dagoeneko zuntz optikoa iritsi da gure herrira. Atzean geratu da herrian zegoen ADSL zahar hura, fitxategiak deskargatzeko eta bideoak ikusteko arazo handiak ematen zizkiguna.

Agian, ni neu nahiko exijentea izango naiz Interneteko zerbitzuetan. Izan daiteke herriko jendeak hainbeste garrantzi ez ematea, edota konformista izatea Interneteko gaiei buruz. Baina, egia da lehen geneukan zerbitzua guztiz zahartuta zegoela.

Duela asko, aldizkari honetan, zuntz optikoaren abantailei buruz idatzi nuen. Beraz, izan daiteke artikulua horretan idatzi nituen gai batzuk errepikatzea hemen.

Gutako askok dauzkagu ordenagailua (mahai gainekoa edo "sobre-mesa" deitzen dioguna), portatila eta mugikorra etxeko Internetari lotuta. Seguruena, etxean gertatu zaizue, norbait zerbait deskargatzen hastea, edota bideoak eta argazkiak bidaltzen hastea; eta nebarreba nahiz guraso edo seme-alabari momentu horretan zegoen bideoa, jokoa edo Interneteko elkarriketa nahigabe moztea edo motelduarazi izana.

Hori da, gehienbat, gaur egungo komunikabide programetan iraultza garatu da interneteko sarearen eraginez. Baina, Interneteko iraultza hori ez da toki guztietan berdin eman. Hala nola, herri txikietan atzean geratzen dira zaharkituta dauden Interneteko sare bakarrarekin konektatu ahal izateko. Baina, nola sare horiek ez diren garatu komunikabide programek eskatzen duten punturaino, arazoak sortzen dira, adibidez, sareko mozketak, abiadura moteleko konexioak e.a.

Bada, arazo hauek atzean gelditu dira (edo hala dirudi oraingoz); dagoeneko, Movistarrek sartu du bere FTTH herrian. Zer da FTTH? Fiber to the House esan nahi du, hau da, zuntz optikoa etxeraino. Hau azpimarratu nahi dut, konpainia askok zuntza saltzen baitute, baina ez etxeraino, baizik eta portaleraino. Gero, portaletik etxe barruraino beste konexio mota bat da. Orainxe bertan herrian daukaguna da benetako zuntz optikoa gure etxeraino. Ia-ia kontratatutako abiaduraren %100a iristen zaigu.

Herri txikia da Itsasondo, baina bazen garaia zuntza iristeko. Ni ere harrituta gelditu nintzen instalazioa

bukatu eta frogak egin nituenean. Nire kasuan 300MB hartu ditut, eta 300MB baino gehiago iristen zaizkit. Baina, Movistarrek eskaintzen duen 30MB ere oso ondo doa.

Badirudi deskonexio eta saturazio horiek gutxitu egin direla, eta orain norbaitek deskargatu dezake zerbait eta besteak youtubeko bideoak ikus ditzake inongo arazorik gabe.

Esan beharra dago baita ere telebistaren kasuan, Zuntz optikoaren bitartez telebista ikusteko aukera badagoela, alternatiba bat delarik. Ekaitz egunetan edo haize handia egiten duen egunetan, TDTko kate asko ez dira ikusten. Zuntz optikoaren telebistan, berriz, ez da hori gertatzen, Internetetik emititzen ariko balitz bezala baita.

Galera bakarra Movistarreko telebistan (dagoeneko Itsasondon bakarrik dugu Movistar), esaten da Interneteko konexioan 6mb gutxi gorabehera jaten duela. Hala ere, nahikoa da Interneten inongo arazorik gabe ibiltzeko. Salbuespen bakarra da Emule, Ares, Torrent... programa hauek jartzen baditugu. Jendeak dio deskargatzeko programa hauek eragiten dutela Movistarreko telebista moteltzea edota pixelatua ikustea.

Hilabete gutxi batzuk bakarrik daramatzagu zuntz optikoarekin. Ea denborak zer dakarkigun gerora, eta ea zein den Interneteko hurrengo iraultza. Datorrena datorrela, espero dugu etorkizunean etor daitezkeen berrikuntzak ikusita, gure herria prest egotea ahal den azkarren. ■

“Nahi duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?”

Herriari galdetzea. Zer gauza normalagorik, sanoagorik. Bi gauza behar dira galdeketa bat egiteko: batetik, egiteko gogoia; bestetik, egiteko gaitasuna. Ekainaren 5eko galdeketa begira, hainbat hilabete pasa ditugu burubelari lanean, eta iritsi zen azkenean eguna. Parte-hartzea genuen helburu eta Itsasondoren %36,62koa izan zen; Goierrin, berriz, guztira 15.724 goierritarrek eman zuten botoa, %27,08ko parte-hartzearekin: horietatik, %95,7k egin zuten euskal estatu burujabe bateko herritar izatearen alde, eta %3,8k kontra; boto zuriak %0,6 izan ziren, eta baliogabeak, %0,4. Emaitzak emaitza, irakurketak irakurketa, gure asmoa bete dugu: herritarren hitzari eta erabakitzeari normaltasuna ematen hastea. Egun ederra izan zen, beraz!

Dakizuen bezala, galdeketa gauzatzeko egin beharreko prozesua luzea izan da, eta hainbat fase izan ditu: sinadurak biltzea, galdera adostea eta erabakitzea. Bide honetan, eta galdeketa egunean bertan, laguntzaile leial eta ezinbesteko izan zaituztegu. Hainbat zereginetan aritu zarete: etxez etxeko banaketak, mahaikide, segurtasun zein jarraipen lanak egiten... Bihotzez eskertzen dizuegu egindako ahalegina, herritarren sarea behar-beharrezkoa baitugu elkarrekin pausoak ematen eta helburuak betetzen jarraitzeko.

Kontuan izan hau ez dela bukatu! Hasi egin gara erabakitzen eta lan handia dugu oraindik aurretik. Aurrerantzean ere bidelagun izango zaituztegu espero dugu, elkarrekin lortuko baitugu erabakiak hartzen dituen herri zoriotsua! ■



Biodantza

Maiatzaren 14an, Biodantza saioa eduki genuen Itsasondan.

Urkiye Eskolako aterpean ederki pasatu genuen, gure bizitzaren mugimendu eta potentziala ezagutuz eta eskertuz.

Emozioei lekua eginez, mugimenduak sortuz, haize freskoa, gozotasuna eta kidesasuna sentitzeko aukera izanik. Norberak bere gorputza askatu, eta irribarreak eta alaitasuna konpartitu genituen ekimen honen bitartez.

Haur eta helduen saio honetan afektibitatea landu genuen, eta guztion arteko lotura aberastu.

Biodantzaren bitartez, uneoro zerbait berria sortzen da.



Goiz bateko saioa izan genuen Ainhoa Iturberen eskutik. Gogotsu irten ginen bertatik; eta, zergatik ez gehiagotan izan aukera eder hau? ■

Eguneroko gatazkak nola saihestu

Maiatzaren 23an, 10 bat lagun elkartu ginen Kulturgunean, Nerea Mendizabalen "Eguneroko gatazkak nola saihestu" hitzaldia entzuteko.

Heldu eta haurren eguneroko erlazioan sortzen diren gatazkak gutxitzeko eta harremanak ez okertzeko erabili daitezkeen estrategiei buruz jardun genuen. Loia, elikadura, eskolara ez joan nahi izatea, amarengandik ezin banandu, telebista, 100.000 aldiz esan behar kasu egiteko... Zer egin behar genuke gatazka egon ez dadin? Jokaera desegokiaren aurrean, zer? Haurrak nola ikasiko du? Zer daukagu ikasteko eta aldatzeko? Nola jarri mugak mehatxu, zigor eta xantaiarik gabe? Nola jaso haurren amorrua? Guztia haurren osasun emozionala zainduz. Gure ezintasuna eta amorrua benetako indar eta potentzia bilaka dadin erabil dezakegu. Beldur naiz haurren eskaerei eta erreguei erantzunaz, gehiegi babestuko ote dudana. Nola lagundu bere autonomia?



Guraso edo hezitzaile bezala, ditugun beldur eta kezka hauei guztiei aurre egiteko dituen estrategiak azaldu zituen.

Guraso eta seme-alaben elkar ulertzea. Nola hitz egin gure seme-alabei, entzun diezaguten; nola entzun hitz egin dezaten... Horri buruz jarduteko aukera izan genuen. ■

Errepresaliatuen Eguna

Etorkizun duin bat ez dugu sekua lortuko memoria galduz gero. Eta horretaz konsziente izan garelako eta garelako BETI, BETI gogoratuko ditugu herri honen alde lan egin duten guztiak; nahiz eta arrazoi desberdinengatik orain gure artean ez egon.

Pikutara musika taldeak abesten zuen bezela, "Rafa, Mikel eta Peru, GOGOAN ZAITUZTEGU...". Guk 28an abestu genuen (eta beti abestuko dugu); "Txato, Mikel eta Txikia, GOGOAN ZAITUZTEGU...".

Mila esker hiruroi emandako guztiagatik.■



Siriar errefuxiatuentzat material bilketa

ORDIZIA-SIRIA'16 proiektuarekin bat eginez, uztailaren 1ean bildu genuen materiala herriko plazan. Siriako errefuxiatuei bidaliko zaie. Bilketa arrakastatsua izan zen. Eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen elkartasunagatik.■



IV. Garagardo azoka

Azken urteetan bezala, Arbel-Aitz elkarteak garagardo azoka antolatu zuen. Aurten, San Juan inguruko aste bukaeran suertatu zen; beraz, herrian ospatzen den San Juan su festa aprobetxatuz ireki genuen azoka. Hori bai, bertan jartzen den sardina-janari oztopo ez egitearren, garagardoa bakarrik eskaini genuen. Ekainaren 24an eta 25ean, arratsaldeko 6etan ireki genituen ateak, eta egun hauetan bai, saldu genituen afariak. Menua saltxitxak, ukondoak patata purearekin eta postrea zen. Esan beharra dago Goiagi okindegiak inoiz baino hobeto erre zizkigula ukondoak, eta hori dena ondo bustitzeko 10 garagardo mota aukeratzeko parada egon zen.



Arbel-Aitz elkartetik esan beharra daukagu, nahiz eta eguraldiak ez zигun lagundu, herritar ugarik babestu gintuela beraien parte-hartzearekin, eta bihoztzez eskertzen diegula gerturatu ziren guztiei.

Datorren urtean berriro ikusiko dugu elkar.■

Zinema kalean

Uztailak 8an, egualdiak lagun, gaueko hamarretan, goiko kaleko frontoian, "Del Reves" pelikula ikusteko aukera izan genuen. Aurretik "bokata" jana egiteko deialdia zegoen eta giro ederrean pasa genuen arratsaldea. Eskerrak eman lanean aritu zineten guztioi. ■



IV. Familia lana: Eskolako parkea

Eskolako parkeko zorua berrizatzeko proiektua martxan jarri da. Hurrengo ikasturterako, zoru berria izango da.

Proiektuarekin hasteko, lehenik jarrita zegoena kendu beharra zegoen. Deialdia egin, eta berriro ere erantzun ezin hobeia izan genuen haur eta gurasoen aldetik!

Lauretan elkartu, eta ordu pare batean, bertako kolunpio, txirrista eta gainontzekoak atera, zegoen gomazko lurra altxatu eta kendu, gelditzen zen zorua txukun utzi eta traste guztiak gordeta utzi zituzten. ■



Baionan ikastegi berria eraikitzeko

"Jalgi" lelopean ospatu zuen maiatzaren 8an Herri Urratsen 33. edizioa, Senpereko laku inguruan. Aurtengo bildutako dirua Baionan lanbide heziketa euskaraz eskaini ahal izateko ikastegi berria eraikitzeko izango da.

Itsasondotik, 23.urtez jarraian, abiatu zen bertara goizean goiz autobusa. Iritsi orduko, hamaiketako egin eta lakuari bira emanez jai giroaz gozatzeko aukera izan zen. ■



San Juan gaia

Pasa den ekainaren 23an San Juan bezperako eguna ospatu genuen Itsasondan. Arratsaldean hasi zen jai giroa. Plazan elkartu ginen herritarrok, eta afari-merienda gozoa prestatu ziguten urtero lez zenbait herritarrek: sardinak, txistorra eta hirugiharra dastatzeko aukera izan genuen. Eskerrik asko!

Horren ostean, iluntzean, sua piztu genuen herriko enparantzan, eta albokaren doinuarekin batera, herriko sorgan zein artzainak bertara hurbildu ziren, suaren inguruan dantza egitera. Giro ederra jarri ziguten Itsasondoko sorgan eta artzainek! ■



Urkiko 2016ko maiatzeko jaiak

Apirilaren 30ean, 18:30ean hasi ziren festak. XXXIII. MUS txapelketa jokatu zen. Zortzi bikote izan ziren bertan, eta azkenean, Lontxo Arzak eta Iker Mendizabalek irabazi zuten.

Ondoren, afaria egin zuten elkartean, LAJA eta MIKEL trikitilariak giroturik.

Maiatzaren 1ean (igandea), hamaiketakoarekin hasi zuten eguna. Ordurako, EPELDE eta LUTXURDIO trikitilariak bertan ziren. Eguerdian bazkaria eta arratsaldean XXXIII. TOKA txapelketa izan zituzten. Irabazleak AITOR GARMENDIA eta LURDES ARANBURU izan ziren.

Maiatzaren 3an (asteartea), Gurutze Deunaren Eguna 11:00etan hasi zuten, ermitan egin zen mezarekin. Ondoren, elkartean hamaiketako egitera hurbildu zen jende andana, eta goiko mahaiak bete-bete egin ziren. Eguerdian partean, OSTOLAZA eta NARBAIZA trikitilariak girotu zuten plaza.



14:30ean bazkalduta eta arratsalde-iluntzerako indarrak harturik, erromeria jendetsua egin zen, egun osoan trikitia jotzen jardun zuten OSTOLAZA eta NARBAIZA trikitilariekin.

Azkenik, sari banaketaren ondoren, Urkiko jaien alde zozketatzen den antxumaren zenbakia atera zen. LUIS ARANBURU izan zen zorteko.

Irailaren 10ean, 11n eta 14an, berriz, SANTIKUTZ JAIK. ANIMATU! ■

(natura)

San Juan, San Juan heldu da...

Ekainaren 23an San Juan bezpera ospatzen dugu herri askotan. Mitoek eta ipuinek istorio desberdin asko kontatu dizkigute gau magiko honi buruz, baina esan beharra dago, San Juan eguna urteko egunik garrantzitsuenetakoa dela sendabelarrak bildu eta erabiltzen ditugunontzat. Egun horretantxe biltzean, energia eta propietate gehiago dituzte.

Landareak batu eta etxean probak egitera animatu nahi zaituztet.

Horretarako, gure inguruetan oso ugaria eta ezaguna den sendabelar bat nola erabili azalduko dizuet.

San Juan belarra (*Hypericum perforatum*, garai honetan loratan daukagu): azaleko gaitzentzako egokia. Bereziki zauriak, erredurak, azkureak, e.a. sendatzen lagunduko digu. Zirkulazioaren bizigarria (masajeetarako), orbaintzailea (zauriak ixteko) eta antiseptikoa da. Sendabelar hau San Juan gauetik aurrera biltzen da normalean. Ondoezin ugari sendatzen laguntzeko aproposa. Animoa pizten du eta lasaigarri naturala da (infusioetan; ez da komeni denbora luze hartzea, fotosensiblerik baita).

Sendabelarrak hainbat modutan erabil daitezke; hauei printzipio aktiboak ateratzeko ura, olio edo alkohola erabiltzea da ohikoena.

San Juan belarra oso arrunta da gure mendietan, arrunta bezain garrantzitsua. Urte sasoi honetan bildu eta lehortu deakegu.

NOLA EGIN San Juan olio

- Tapa duen kristalezko ontzi bat belarrez bete.
- Oliba olio estali (lehen presiokoa eta ekologikoa ahal bada).
- Eguzkitan jarri (balkoi edo leiho batean), 30 egun gutxienez.
- Noizbehinka tapa kendu, kondentsatzen den ura lurruntzen uzteko. Tapa jarri berriz, eta olio nahastu, ontzia astinduz.

Olioak kolore gorria hartzen du belarraren ezaugarriak bereganatzean.

Azkenik, olio iragazi beste ontzi batera, eta itzaletan gorde. Erabiltzeko prest. ■



Maddalen Sarasola



(errezeta)

Onddo rissottoa, Idiazabal gazta eta porru germinatuekin

Osagaiak

- 100 gr arroz
- 60gr onddo
- 20gr idiazabal gazta
- Tipula erdi
- Baratxuri bat
- Ardo zuri kopa bat
- 250ml oilo salda
- 30ml nata likidoa
- Gatza

Elaborazioa

Tipula, baratxuria eta onddoa frijituz hasiko gara. Prest dagoenean, gatza eta arroza bota eta arrozari kolore doratu pixkat hartzen utzi. Ardo zuri kopa gehitu eta ondoren oilo salda. Dena ondo nahastu, arrozak bere puntu "al dentea" hartu arte. Gero, nata likidoa eta Idiazabal gazta botako dizkiogu eta dena ondo nahastuko dugu, forma homogenea izan arte. ■

JATEKO PRONTO!



Asier Arbilla
Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL
www.arbeletxe.com
973 361 634

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zenbait adibide. Saia gaitzeen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
BESTE EGUNEAN gertatu zitzaidan hori.	LEHENGO EGUNEAN gertatu zitzaidan hori.
Atzo Eiderrekin egon nintzen E(RE) BAI.	Atzo Eiderrekin ERE egon nintzen.
Arazo hori 16 urteko gazteen artean EMATEN da.	Arazo hori 16 urteko gazteen artean GERTATZEN da.



Euskaraz bai, umorea ere bai:

Ariketak

Patziku Txiki etxera sartu da:

- Aita, aita... Inor zigortu al daiteke egin ez dituen gauzengatik?
- Ez noski! Hori injustizia litzateke.
- Eskerrak, aita! Ez baititut andereñoak agindutako ariketak egin.

Albisteak

Xabier Martin da iparra.eus webgunearen sortzailea. Webgunearen helburua gure hizkuntza eta kultura zabaltzea da, munduari bizirik gaudela esateko; eta, era berean, Euskal Herrian bizi garenoi gure hizkuntza erabiltzera animatzea.

Xabierrek webgunean hainbat baliabide jaso ditu: euskaraz dauden aplikazioak, euskaraz ikus daitezkeen film, telesail eta marrazki bizidunak, azpituak euskaraz jartzeko baliabideak, dokumentalak, arreta euskaraz eskaintzen duten enpresak, establezimenduak, dendak eta jatetxeak, euskarazko irratia eta abar.

Hori guztia eta gehiago bere webgunean duzu eskura:

www.iparra.eus

Liburutegia

E-book zerbitzua

Uztailaren 1etik aurrera gure liburutegian bi e-book mailegatzeko aukera dago.

Ezaugarriak

- Mailegua 20 egunetarako
- 18 urtetik gorakoentzako
- Doako zerbitzua

Baldintzak

18 urte beteak izatea eta liburutegiko txartela izatea

Informazio gehiago:

Udaletxean

www.itsasondo.eus

itsasondokoliburutegia@gmail.com



Udan ere irakurri kanpaina

Itsasondoko udal liburutegiak liburuxka bat osatu du azken liburuekin, herritarrek udan ere irakurtzera gonbidatuz.

Bertan, haurrentzat, gaztetxoentzat eta helduentzat dauden liburu berrienak azaltzen dira.



2017ko egutegirako argazkiak

Gaia kolore bat jarri eta udaran, itsasondoko txokoan inguruko argazkiak atera beharko dira.

Oharrak



ABUZTUA

14: Andra Mari bezperako bazkaria Bizi Nahi elkartearen.

15: Andra Mari jaiak.

IRAILA

6, 13, 20, 27: Tipi Tapa, ongizate fisikoa naiz mentala hobetzeko ekintzak.

5: Ongizatea batzordea | 19:00tan udaletxeko 2. solairuan.

7: Podologo zerbitzua Bizi Nahi elkartearen.

10-11-14: Urkiko Santikutz jaiak.

15: Bingoa Bizi Nahi jubilatuta elkartearen.

16-17-18: Itsasondoko jaiak.

19: Lurralde Antolamendua eta Hirigintza batzordea | 19:00tan udaletxeko 2. solairuan.

21: Herri Bizitza batzordea | 19:00tan udaletxeko 2. solairuan.

23 eta 30: Pintxo-potea.

25: Jubilatuta eguna | Nautikon bazkaria.

26: Dokumental emanaldia | UNO POR CIENTO ESQUIZOFRENIA 19:00 kulturgunean.

URRIA

1: ARALAR-en gau magikoa.

4, 11, 18, 25: SOINKETA (16:45) udaletxeko 1. solairuan eta ondoren Tipi Tapa paseoa (17:45) plazan.

7-14-21: Pintxo-potea.

15: HIP HIP URRI!. Itsasondo-Legorreta ibilaldia.

17: Ongizatea batzordea | 19:00tan udaletxeko 2. solairuan.

18: Lurralde Antolamendua eta Hirigintza batzordea | 19:00tan udaletxeko 2. Solairuan.

19: Herri Bizitza batzordea | 19:00tan udaletxeko 2. solairuan.

24: Liburutegiaren nazioarteko eguna.

25: Harrera eguna | Azken urtean herrira bizitzera etorri direnei harrera egingo zaie, 18:00tan plazan.

25: Memoria tailerra | 18:00 Bizi Nahi jubilatuta elkartearen.

26: Dokumental emanaldia | EGIAREN HAZIA 19:00 kulturgunean.

27: Bingoa Bizi Nahi jubilatuta elkartearen.

29: Odoi emailak | 18:30 – 20:00 udaletxean.

AZAROA

1, 8, 22, 29: SOINKETA (16:45) udaletxeko 1. solairuan eta ondoren Tipi Tapa paseoa (17:45) plazan.

5: Gatzain jana.

14: Lurralde Antolamendua eta Hirigintza batzordea | 19:00tan udaletxeko 2. solairuan

15: Ongizatea batzordea | 19:00tan udaletxeko 2. solairuan.

15: ERORKETA TAILERRA (16:45) udaletxeko 1. solairuan eta ondoren Tipi Tapa paseoa (17:45) plazan.

16: Herri Bizitza batzordea | 19:00tan udaletxeko 2. solairuan.

23: Film-a euskaraz | AMAREN ESKUAK 19:00 kulturgunean.

24: Bingoa Bizi Nahi jubilatuta elkartearen.

25: Emakumeen aurkako tratatu txarren nazioarteko eguna.

26: Antzerkia.

29: Memoria tailerra | 18:00 Bizi Nahi jubilatuta elkartearen.

Telefono interesgarriak



Udaletxea 943 881170

- Gizarte Langilea
- Udal Arkitektoa
- Epaitegia

Haurreskola 943 164831

Herri Eskola 943 887704

Arbel-Aitz Elkartea 943 881339

Lurdes Janari Denda 943 885236

Arrastoa Botika 943 882148

Medikuarenean Txanda Hartzeko

Hartzeko 943 007635

Kaxintane Taberna 606 756551

Nautiko Taberna / Izaskun Hotela

943 880012

Izaskun Ileapaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555

Traste Zaharrak 943 161590

Taxi (Ordizia) 943 881486

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((33: 3k))) Urtarrilaren 2016

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
Aitor Garmendia
Amaia Salegi
Axier Arbilla
Axier Bazaga
Bizi Nahi jubilatuta elkartearen
Danel Etxeberria
Eduardo Pellus
Enma Arrondo
Enma Martinez
Eskolako haurrak
Erkuden Mendizabal
Haurreskolako hezitzaileak
Iker Mendizabal
Iratxe Ibarra (UEMA)
Iturririk Guraso Elkartea
Javi Diaz
Maite Lasa
Maite Riaño
Maddalen Sarasola
Maddi Alberdi
Mikel Mendizabal
Ruth Gomez
Saioa Garbizu
Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, ko-
rreoz edo e-mailaz, aldizkaria zure etxean
jaso nahi baduzu, jarri gurekin harrema-
netan:

943 88 11 70
itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN:
SS-297-2010 2171-5572



GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
URRIAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN